



Trebakuntza 2010/01: PASIBOA ETA INPERTSONALA

Gaztelaniaren eraginez, maiz erabiltzen ditugu euskaraz pasiboa zein inpertsonala. Gaztelaniazko idatzietan sarri ikusiko ditugu “*Se comunica, se hace saber, se dispone...*” erako adierazpideak, baita “*Han sido llevados, ha sido detenido...*” erakoak ere.

Hala ere, esan beharra dago euskara berez hizkuntza aktiboa dela eta esaldiak subjektua behar duela; hots, ekintza nork egin duen adieraztea komeni dela, esaldia ulerterrazagoa izan dadin.

OHARRA: asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. **Gaur goizean izan dira onartuak Muxikako Udaleko aurrekontuak.*
2. **Istiluen ondoren, zortzi gazte atxilotuak izan dira.*
3. **Zaurituak anbulantzian eramana izan ziren.*
4. **Azterketa eguna datorren astean jakinaraziko zaizu..*
5. **Ibilgailu honen jabeari jakinarazten zaio hilaren 20rako kaletik kendu egin behar duela.*
6. **Honekin batera bidaltzen zaizu ebazpen hau.*

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95
bizkaia1@uema.org

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72
gipuzkoa2@uema.org



ZUZENKETAK ETA AZALPENA

Pasiboa eta inbertsonala ez erabiltzeko, komenigarria da ekintza nork egin duen adieraztea (nik, guk, haiek...). Hartara, askoz argiago geratuko da esaldia.

Gerta liteke subjektua ezkutuan geratzea. Nolanahi ere, esaldia irakurtzen duenari argi geratuko zaio ekintzaren egilea nor den, testuinguruak lagunduko baitio.

1. Ad. **Gaur goizean onartu dituzte Muxikako Udaleko aurrekontuak.** (hautetsiek)
2. Ad. **Istiluen ondoren, zortzi gazte atxilotu dituzte.** (poliziek)
3. Ad. **Zaurituak anbulantzian eraman zituzten. Zaurituak anbulantziak eraman zituen.** (larrialdietako langileek)
4. Ad. **Azterketa eguna datorren astean jakinaraziko dizut /dizugu.** (nik, guk/deialdia egiten dugunok/aztertzaileok...)
5. Ad. **Ibilgailu honen jabeari jakinarazten diot /diogu, hilaren 20rako kaletik kendu egin behar duela.** (nik/udal ordezkariok...)
6. Ad. **Honekin batera bidaltzen dizut /dizugu ebazpen hau.** (nik/udal langileok...)

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95
bizkaia1@uema.org

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72
gipuzkoa2@uema.org



Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAn teknikariek:

- Telefonoz: **943260372 (Imanol)** eta **946279195 (Iratxe)**
- Posta elektronikoz: gipuzkoa2@uema.org (Imanol) eta bizkaia1@uema.org (Iratxe)

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95
bizkaia1@uema.org

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72
gipuzkoa2@uema.org